| | | 22711 | Programa informatikoen mantentze-lanak | 19.041,57 | 22.000,00 | 19.800,00 | -2.200,00 | **-10,00%** |
| | | 22712 | Jardunaldiak eta mintegiak | 10.000,00 | 10.000,00 | 1.000,00 | -9.000,00 | **-90,00%** |
| | | 22713 | Jabekideen erkidegoko kuotak | 22.731,06 | 37.275,00 | 31.557,03 | -5.717,97 | **-15,34%** |
| | | 22714 | Barneko Euskara Plana | 12.000,00 | 12.000,00 | 7.405,20 | -4.594,80 | **-38,29%** |
| | | 22715 | Kanpoko beste enpresek egindako lanak | 8.184,00 | 25.000,00 | 10.000,00 | -15.000,00 | **-60,00%** |
| | | 22716 | Itzulpen-zerbitzuak | 26.000,00 | 26.000,00 | 14.000,00 | -12.000,00 | **-46,15%** |
| | | 22718 | Berdintasun-plana | 12.000,00 | 12.000,00 | 0,00 | -12.000,00 | **-100,00%** |
| | | **228** | **Proiektuak eta programak** | **465.080,00** | **434.230,00** | **329.500,00** | **-104.730,00** | **-24,12%** |
| | | 22801 | Udalerri txikien dirulag. jarraip. (INFOUDALA) | 21.780,00 | 21.780,00 | 20.000,00 | -1.780,00 | **-8,17%** |
| | | 22802 | Toki Zuzenbideko Euskal Mintegia | 15.000,00 | 16.000,00 | 16.000,00 | 0,00 | **0,00%** |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 22803 | Politikari eta zuzendarien prestakuntza | 35.000,00 | 15.000,00 | 0,00 | -15.000,00 | **-100,00%** |
| | | 22804 | Prestakuntza- lagun egiteko programak | 50.000,00 | 50.000,00 | 10.050,00 | -39.950,00 | **-79,90%** |
| | | 22805 | Buruzagitza prestakuntza | 0,00 | 7.650,00 | 7.650,00 | 0,00 | **0,00%** |
| | | 22805 | EALZ eta Etxebizitza Komunitarioen arloko aholkularitza | 14.500,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | |
| | | 22806 | Europako proiektuak | 40.000,00 | 35.000,00 | 35.000,00 | 0,00 | **0,00%** |
| | | 22807 | Berdintasuna, Berdinsarea | 52.400,00 | 52.400,00 | 52.400,00 | 0,00 | **0,00%** |
| | | 22808 | Berdintasuna, Berdinbidean | 50.400,00 | 50.400,00 | 50.400,00 | 0,00 | **0,00%** |
| | | 22809 | Euskara EUDEL | 33.000,00 | 33.000,00 | 33.000,00 | 0,00 | **0,00%** |
| | | 22810 | TBA (Herrismartik) | 110.000,00 | 110.000,00 | 55.000,00 | -55.000,00 | **-50,00%** |
| | | 22811 | Etorkinentzako itzulpen-zerb. | 43.000,00 | 43.000,00 | 50.000,00 | 7.000,00 | **16,28%** |
| | **23** | | **Zerbitzuagatiko kalte-ordaina** | **34.052,35** | **34.052,00** | **19.883,80** | **-14.168,20** | **-41,61%** |
| | | 230 | Dietak, langileen lokom. eta joan-etorriak | 19.052,35 | 19.052,00 | 12.383,80 | -6.668,20 | **-35,00%** |
| | | 231 | Dietak, goi-karguen lokom. eta joan-etorriak | 15.000,00 | 15.000,00 | 7.500,00 | -7.500,00 | **-50,00%** |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **3** | | | **GASTU FINANTZARIOAK** | **22.284,09** | **15.691,61** | **15.691,61** | **0,00** | **0,00%** |
| | **33** | | **Epe luzerako maileguak** | **22.284,09** | **15.691,61** | **15.691,61** | 0,00 | **0,00%** |
| | | 331 | Epe luzerako maileguen interesak | 22.284,09 | 15.691,61 | 15.691,61 | 0,00 | **0,00%** |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **4** | | | **TRANSFERENTZIA ARRUNTAK** | **22.333,13** | **22.334,00** | **11.284,00** | **-11.050,00** | **-49,48%** |
| | **48** | | **Fam. eta irabaz asmorik gabeko erakundeei** | **22.333,13** | **22.334,00** | **11.284,00** | **-11.050,00** | **-49,48%** |
| | | **481** | **Irabaz asmorik gabeko erakundeei** | **22.333,13** | **22.334,00** | **11.284,00** | **-11.050,00** | **-49,48%** |
| | | 48101 | Hitzarmena, FEMP | 7.067,00 | 7.067,00 | 7.067,00 | 0,00 | **0,00%** |
| | | 48102 | Hitzarmena, EUSKALTZAINDIA | 15.000,00 | 15.000,00 | 3.950,00 | -11.050,00 | **-73,67%** |
| | | 48103 | Hitzarmena, EUSKALIT | 266,13 | 267,00 | 267,00 | - | **0,00%** |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **6** | | | **INBERTSIO ERREALAK** | **221.737,68** | **198.228,03** | **141.228,03** | **-57.000,00** | **-28,75%** |
| | **62** | | **Zerbitzuen funtzionamendu operatiboarekin zerikusia duen inbertsioa** | **179.737,68** | **146.228,03** | **129.228,03** | **-17.000,00** | **-11,63%** |
| | | **622** | **Eraikinak eta beste eraikuntzak** | **155.737,68** | **112.228,03** | **112.228,03** | **0,00** | **0,00%** |
| | | 622.02 | Beste eraikinak eta eraikuntzak | 155.737,68 | 112.228,03 | 112.228,03 | 0,00 | **0,00%** |
| | | **625** | **Altzariak eta tresnak** | **24.000,00** | **34.000,00** | **17.000,00** | **-17.000,00** | **-50,00%** |
| | | 62501 | Altzariak | 6.000,00 | 6.000,00 | 1.000,00 | -5.000,00 | **-83,33%** |
| | | 62502 | Bulegoko ekipoak | 18.000,00 | 28.000,00 | 16.000,00 | -12.000,00 | **-42,86%** |
| | **64** | | **Inbertsio immaterialen gastuak** | **42.000,00** | **52.000,00** | **12.000,00** | **-40.000,00** | **-76,92%** |
| | | **644** | **Aplikazio informatikoetako gastuak** | **42.000,00** | **52.000,00** | **12.000,00** | **-40.000,00** | **-76,92%** |
| | | 64401 | Inbertsioak programak | 30.000,00 | 40.000,00 | 12.000,00 | -28.000,00 | **-70,00%** |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 64403 | Sist. ekonomikoaren garapena | 12.000,00 | 12.000,00 | 0,00 | -12.000,00 | **-100,00%** |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **9** | | | **PASIBO FINANTZARIOAK** | **388.538,65** | **392.672,71** | **392.672,71** | **0,00** | **0,00%** |
| | **93** | | **Epe luzerako maileguen amortizazioa** | **388.538,65** | **392.672,71** | **392.672,71** | **0,00** | **0,00%** |
| | | **931** | **Kanpokoak, Sektore Publikotik kanpokoak** | **388.538,65** | **392.672,71** | **392.672,71** | **0,00** | **0,00%** |
| | | 93101 | Epe luzerako ondarearen amort. Colon de Larreategi | 147.988,62 | 149.009,61 | 149.009,61 | 0,00 | **0,00%** |
| | | 93102 | Epe luzerako ondarearen amort. Ercilla | 240.550,03 | 243.663,10 | 243.663,10 | 0,00 | **0,00%** |

**III. ERANSKINA**

## BATZORDE BETEARAZLEAK 2019KO ABENDUAREN 12AN ONARTUTAKO AURREKONTU-PROIEKTUA.

## EUDELen AURREKONTU-PROIEKTUAREN TXOSTENA, 2020KO EKITALDIA

Txosten honen xedea da EUDELen 2020ko ekitaldiko aurrekontua aztertzea. Horretarako, nabarmendu behar da aurrekontu hau egiteko aintzat hartu dela autonomia-erkidegoko toki-erakundeei aplikatzeko aurrekontu-egitura.

Txosten honetan, lehenik eta behin, sarreren eta gastuen analisi ekonomikoa egin da kapituluka; eta ondoren gastuen analisia garatu da programaka.

EUDELen 2020ko ekitaldiko gastuen eta sarreren aurrekontu orekatua 3.298.457,15 eurokoa da; hau da, aurreko ekitaldiko aurrekontuko hasierako aurreikuspenaren aldean ehuneko 4,7 hazi da.

Gastuen sailkapen ekonomikoan kapitulu mailako lotura juridikoa dago, eta gastuen programakako sailkapenean, aldiz, gastu-arloaren mailakoa.

Sarreren eta gastuen aurrekontuen egoera-orriak erantsi zaizkio txosten honi. Alderaketa egin ahal izateko, 2019ko hasierako aurreikuspenei buruzko datuak ere sartu dira.

## SARREREN AURREKONTUAREN ANALISIA

2020ko ekitaldirako sarreren aurrekontu orekatua 3.298.457,15 eurokoa da. Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenekin alderatuz gero, aurrekontua ehuneko 4,7 igo da.

Hona hemen 2020ko ekitaldiko sarreren aurrekontuaren banakapena eta 2019ko aurrekontuekin egindako alderaketa:

Zenbatekoak eurotan daude

| | | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2019 | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2020 | ALDAKETA % | 2020ko aurrekontuaren % |
|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA 3. KAPITULUA** | **Tasak eta beste sarrera batzuk** | **17.000,00** | **17.236,00** | **% 1,39** | **% 0,52** |
| **GUZTIRA 4. KAPITULUA** | **Transf. arruntak** | **3.076.219,25** | **3.225.149,27** | **% 4,84** | **% 97,78** |
| | Zerga itunduen partaidetza | 2.477.787,88 | 2.530.060,31 | % 2,11 | % 76,70 |
| | Bazkideen kuotak | 286.081,37 | 289.988,96 | % 1,37 | % 8,79 |
| | Gobernantza proiekturako ekarpenak | 20.000,00 | 20.000,00 | % 0,00 | % 0,61 |
| | Dirulaguntzen sarrerak | 277.350,00 | 370.100,00 | % 33,44 | % 11,22 |
| | Europako Kontseiluarenak | 15.000,00 | 15.000,00 | % 0,00 | % 0,45 |
| **GUZTIRA 5. KAPITULUA** | **Ondare arloko sarrerak** | **56.015,84** | **56.071,88** | **% 0,10** | **% 1,70** |
| **SARRERAK, GUZTIRA** | | **3.149.235,09** | **3.298.457,15** | **% 4,74** | **% 100,00** |

Honako hauek dira 2020ko ekitaldiko sarreren aurrekontuaren alderdirik nabarmenenak:

3. kapitulua. Tasak eta beste sarrera batzuk

Kapitulu honetan, EUDELek HAEErekin batera antolatzen duen Tokiko Zuzenbideari buruzko Euskal Mintegiko inskripzioen ondoriozko sarrerak hartzen dira kontuan batez ere eta EUDELek antolatzen duen buruzagitza-programako sarrerak. 14.736 euroko sarrerak aurreikusten dira.

Era berean, kapitulu honetan 2.500 euroko beste sarrera batzuk ere aurreikusten dira.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

Sarreren kapitulu garrantzitsuena da, sarrera guztien ehuneko 97,8 baita. Transferentzia arrunten ondoriozko sarreretarako aurreikuspena ehuneko 4,8 gutxitu da 2019ko ekitaldiko hasierako aurrekontuen aldean; ondorioz, 2020ko ekitaldirako 3.225.149,27 euroko sarreren zenbatekoa aurreikusten da.

Nabarmendu behar da udalak finantzatzeko foru-funtsen ehuneko 0,15etik datozen sarrerak ehuneko 2,11 hazi direla aurreko ekitaldiko hasierako aurrekontuen aldean. 2020rako sarrera-aurreikuspenetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren aurrelikidazio positiboak hartu dira kontuan; urriko Finantzaketako Lurralde Kontseiluan onartuak. Ondorengo taulan, zerga itunduen partaidetzari dagozkion datuak ageri dira, lurraldearen arabera:

Zenbatekoak eurotan daude

| | | | HASIERAKO AURREIKUSPENAK, 2019 | HASIERAKO AURREIKUSPENAK, 2020 | 2019-2020 arteko aldea (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| **416** | | **Foru-aldundiak eta beste foru-erakunde batzuk** | **2.477.787,88 €** | **2.530.060,31 €** | **% 2,11** |
| | 41601 | Araba. Zerga itunduen partaidetza | 323.899,32 € | 332.063,26 € | % 2,52 |
| | 41602 | Bizkaia. Zerga itunduen partaidetza | 1.349.859,00 € | 1.380.984,09 € | % 2,31 |
| | 41603 | Gipuzkoa. Zerga itunduen partaidetza | 804.029,56 € | 817.012,96 € | % 1,61 |

Udal bazkideen kuota hazterik ez da aurreikusten 2020rako.

Udalak finantzatzeko foru-funtsen partaidetza da baliabide nagusia EUDELen aurrekontuetan, sarrera guztien ehuneko 76,7 baita. Bestalde, elkarteko kideen kuotak sarrera guztien ehuneko 8,8 dira.

Gainera, kapitulu honetan Gobernantza proiektuan parte hartuko duten udalen ekarpenak ere hartzen dira kontuan; kontu-sail horren diru-sarrera 20.000 eurokoa izango da, eta Europako Kontseiluaren lankidetza 15.000 eurokoa.

Transferentzia arrunten kapituluan ere hitzarmenen eta dirulaguntza izendunen bidez Eusko Jaurlaritzako zenbait sailetatik eta Emakundetik jasotzea aurreikusten diren sarrerak biltzen dira, eta sarrera guztien ehuneko 11,2 osatzen dute:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailetik udaletan euskararen erabilpena sustatzeko planak taxutu eta garatzeko: 28.000 euro.
- Emakundetik, Berdinsarea sarerako eta Berdinbidean programarako, 84.800 euro aurreikusten dira.
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailetik, etorkinentzako itzulpen-zerbitzurako, lehengo zenbatekoa mantenduko da: 47.300 euro.
- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Sailetik, Tokiko Berrikuntza Agendarako, 110.000 euroko zenbatekoa mantentzea aurreikusten da.
- Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publikoa eta Autogobernua Sailetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen (ETEL) helburuak sustatzeko, 100.000 euro.

5. kapitulua. Ondare arloko sarrerak.

Ondare arloko sarreren aurreikuspena 56.071,88 eurokoa da, eta ia guztia Bilboko Colon de Larreategui kaleko 35. zenbakian dagoen EUDELen jabetzako ondasun higiezinaren alokairu-kontratuari dagokio.

## GASTUEN AURREKONTUAREN ANALISIA

2020ko ekitaldiko gastuen aurrekontua 3.298.457,15 eurokoa da; hau da, aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuz gero, ehuneko 4,7 hazi da.

Hona hemen 2020ko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren banakapen ekonomikoa eta 2019ko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenekiko alderaketa:

Zenbatekoak eurotan daude

| | | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2019 | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2020 | ALDAKETA % | 2020ko aurrekontuaren % |
|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA 1. KAPITULUA** | **Pertsonal-gastuak** | 1.423.937,05 € | 1.483.428,09 € | % 4,18 | % 44,97 |
| **GUZTIRA 2. KAPITULUA** | **Ond. arrunten eta zerb. erosketa** | 1.070.404,49 € | 1.186.102,71 € | % 10,81 | % 35,96 |
| **GUZTIRA 3. KAPITULUA** | **Gastu finantzarioak** | 22.284,09 € | 15.691,61 € | % -29,58 | % 0,48 |
| **GUZTIRA 4. KAPITULUA** | **Transferentzia arruntak** | 22.333,13 € | 22.334,00 € | % 0,00 | % 0,68 |
| **GUZTIRA 6. KAPITULUA** | **Inbertsio errealak** | 221.737,68 € | 198.228,03 € | % -10,60 | % 6,01 |
| **GUZTIRA 9. KAPITULUA** | **Pasibo finantzarioak** | 388.538,65 € | 392.672,71 € | % 1,06 | % 11,90 |
| **GASTUAK, GUZTIRA** | | **3.149.235,09** | **3.298.457,15** | **% 4,74** | **% 100,00** |

1. kapitulua. Pertsonal-gastuak.

2020ko ekitaldirako 1. kapituluan aurreikusitako kopurua 1.483.428,09 eurokoa da, gastu guztien ehuneko 45, eta aurreko ekitaldian aurreikusitako kopuruarekin alderatuz gero ehuneko 4,2ko hazkundea izan du.

Ordainsarietan ehuneko 3ko hazkundea aurreikusi da, aurreko bi ekitaldietako ehuneko 0,3ko funts gehigarri finkatuaz gain, eta urrira arte postuan zegoen pertsonari ezarritako baldintza berdinetan aurreikusi da antolakuntzako buruzagitzaren ordainsariari dagokion kopurua.

2. kapitulua. Gastu arruntak eta zerbitzuenak.

2. kapitulua gastu guztien ehuneko 36 da, ehuneko 10,8ko hazkundea izan du aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenen aldean.

Kapitulu honetan hau azpimarratu daiteke:

Azterketen eta lan teknikoen partidak 127.768,32 euroko aurrekontua du aurreikusita 2020rako, eta honetarako erabiliko da: datu pertsonalen babes arloan barneko egokitzapen batzuk egiteko, zenbait azterketetarako eta Elkartearen urteko kontuen ikuskaritza egiteko.

Mantendu egin dira euskarako barne-planak (12.000 €) eta berdintasunekoak (12.000 €) egiteko partidak, baita ondorengo atalean zehatzago adieraziko diren programen partidak ere.

3. kapitulua. Gastu finantzarioak.

Kapitulu honek 15.691,61 euro ditu, eta aurreko ekitaldietan Colon de Larreategui eta Ercilla kaleetan erositako higiezinen hipoteka-maileguen interesengatik dauden gastuei dagozkie. Kapitulu hau ehuneko 29,6 murriztu da 2019ko hasierako aurreikuspenekin alderatuz gero.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

Transferentzia arrunten kapitulua 22.334 euro da.

Euskaltzaindiarekin egindako toponimiako itunari buruzko gastua dago, aurreko ekitaldiko 15.000 euroko zuzkidura mantendu da, 7.067 euro daude EUDEL-FEMP lankidetza-akordiorako eta Euskalitekin lankidetzan aritzeko kuota ere kontuan izan da, 267 eurokoa.

6. kapitulua. Inbertsio errealak.

Kapitulu honetan inbertsio materialak eta immaterialak daude, guztira 198.228,03 euro.

Inbertsio materialak 146.228,03 euro dira. Batetik altzariak eta tresneriak daude, 34.000 euro; bestetik, eraikinetako inbertsioak, 112.228,03 euro. Azkenengo zenbateko horretan sartu dira Bilboko Ercilla kaleko 13. zenbakiko komunitateko obrak eta Elkartearen egoitza berrian 2019an egindako obrengatik komunitate horretako auzotar batzuei beharbada eman beharko zaizkien kalte-ordainak.

Inbertsio immateriala 52.000 eurokoa da, eta programa informatikoen inbertsioak (40.000 €) daude, kontabilitatearekin eta sarreren eta irteeren erregistroarekin integratutako espedienteen kudeaketarako sistema elektroniko berria ezarri baita eta informazio ekonomikoaren sistema garatzen jarraitu da (12.000 €).

9. kapitulua. Pasibo finantzarioak.

9. kapituluari dagokion zenbatekoa 392.672,71 eurokoa da, eta, aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuz gero, ehuneko 1,1eko hazkundea izan du.

## GASTUEN AURREKONTUAREN ANALISIA, PROGRAMAREN ARABERA

2020ko gastuen aurrekontuaren banakapena hau da, programen arabera:

Zenbatekoak eurotan daude

| | HASIERAKO AURREKONTU -KREDITUAK, 2019 | HASIERAKO AURREKONTU -KREDITUAK, 2020 | 2019-2020 arteko aldea (%) |
|---|---|---|---|
| ADMINISTRAZIO OROKORRA | 2.669.155,09 | 2.849.227,15 | % 6,75 |
| PRESTAKUNTZA | 100.000,00 | 88.650,00 | % -11,35 |
| GIZARTE ZERBITZUAK | 57.500,00 | 43.000,00 | % -25,22 |
| BERDINTASUNA | 102.800,00 | 102.800,00 | % 0,00 |
| EUSKARA | 48.000,00 | 48.000,00 | % 0,00 |
| UDALERRI TXIKIAK | 21.780,00 | 21.780,00 | % 0,00 |
| BERRIKUNTZA | 110.000,00 | 110.000,00 | % 0,00 |
| EUROPAKO PROIEKTUAK (GOBERNANTZA) | 40.000,00 | 35.000,00 | % -12,50 |
| **GUZTIRA** | **3.149.235,09** | **3.298.457,15** | **% 4,74** |

Programa horietatik, ondorengoa da nabarmentzekoa:

**Administrazio Orokorreko** programan sartzen dira Elkarteari orokorrean dagozkion jardueren ondoriozko gastuak. Gastu-bolumen handiena duen programa da, 2.849.227,15 eurorekin.

Pertsonal-gastuen garrantzia aipatu beharra dago (I. kapitulua: 1.483.428,09 euro), eta hipoteka-maileguen karga finantzarioa ere bai (III. eta IX. kapituluak: 408.364,32 euro).

EUDELen barneko euskara- eta berdintasun-planak garatzea aurreikusten da, baita udalen informazio-sistema ekonomiko-finantzarioa garatzen jarraitzea ere. Era berean, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioarekin dagoen lankidetza-itunari dagokion ekarpena aurreikusten da, eta ETELen helburuak sustatzeko aurreikusitako 100.000 euroko gastua ere bai.

Gastu arruntak eta inbertsio errealak ere programa honetan hartu dira kontuan.

**Prestakuntza** programan 88.650 euroko aurrekontu-zuzkidura aurreikusi da. Aurrekontu-zuzkiduratik 16.000 euro Toki Zuzenbideko Euskal Mintegirako erabiliko dira, 15.000 euro pertsonal politikoaren eta zuzendaritzakoaren prestakuntzarako, 50.000 euro udaleko pertsonal politikoari eta zuzendaritzakoari lagun egiteko programetako prestakuntzarako eta 7.650 euro buruzagitzan trebatzeko.

**Gizarte zerbitzuen** programan, Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko etorkinentzako itzulpen-zerbitzuak jarrai dezan, aurreko ekitaldiko 43.000 euroko zenbatekoa mantendu da, zerbitzua bermatuko duen enpresa kontratatzeko, EUDELek ematen dituen pertsonal-gastuez gain, hau da, aurreikusitako gastuaren ehuneko 10.

**Berdintasun-**programan Berdinsarea izeneko sarea (52.400 euro) eta Berdinbidean programa (50.400 euro) izango dira ekitaldi honetan ere lanaren ardatzak. Osoko zuzkidura 102.800 eurokoa da, eta EUDELek 18.000 jarriko ditu, arlo teknikoko pertsonalaren gastuez gain, eta Emakundek 84.800 euro.

**Euskara**-programan 2020rako 48.000 euroko gastua aurreikusi da, eta horietatik 28.000 euro udaletan euskararen erabilera sustatzeko ekintza-planak taxutu eta garatzeko Eusko Jaurlaritzarekin eginiko hitzarmena betetzeko dira; 15.000 euro, Euskaltzaindiarekin eginiko toponimia-arloko hitzarmenean hartutako betebeharrak gauzatzeko; eta 5.000 euro, programako gastu osagarrietarako.

**Udalerri txikien** programan udalentzat interesgarriak diren araudi-aldaketei eta dirulaguntzei buruzko datu-basearen zerbitzua mantendu da (Infoudala). Aurreko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidura mantendu da, 21.780 euro, eta EUDELen baliabide propioekin finantzatzen da erabat.

**Berrikuntza-**programan, Tokiko Berrikuntza Agendaren proiektuarekin jarraitzea aurreikusten da. Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du proiektua eta aurreko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidura berdina izango du 2020rako: 110.000 euro.

**Europako proiektuei** buruzko programak 35.000 euroko zuzkidura du. Zenbateko hori Gobernantza proiekturako erabiliko da oso-osorik eta udal partaideen ekarpenekin (20.000 euro) eta Europako Kontseiluaren lankidetzarekin (15.000 euro) finantzatuko da.

# ONDORIOAK

2020ko ekitaldiko gastuen eta sarreren aurrekontua orekatuta dago, eta 3.298.457,15 eurokoa da; hau da, aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenaren aldean ehuneko 4,7 hazi da.

Sarrerei dagokienez:

- Aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenen aldean ehuneko 2,1 hazi da udalak finantzatzeko foru-funtsen % 0,15eko partaidetzari dagokion aurrekontu-zuzkidura, 52.272,43 euro gehiago sartuko dira kontzeptu honengatik.

- Aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero, bada berrikuntza bat; izan ere, ETELen helburuak sustatzeko Eusko Jaurlaritzatik 100.000 euro sartuko direla aurreikusten da.

- Udal bazkideen kuotak mantendu egin dira, eta Colon de Larreategui kaleko 35. zenbakiko higiezinaren alokairuagatik sarrerak jasotzen jarraitzea aurreikusten da, baita Toki Zuzenbideko Euskal Mintegiko eta buruzagitza programako matrikulengatik ere bai.

- Era berean, Eusko Jaurlaritzaren eta Emakunderen dirulaguntzak jasotzen jarraitzea aurreikusten da: Berdintasuna (84.800 €), Berrikuntza (110.000 €), Euskara (28.000 €) eta Gizarte Zerbitzuak (47.300 €).

- Gobernantza proiektuarekin jarraitzeko ekarpenak aurreikusten dira; udal partaideek 20.000 euroko ekarpenak egingo dituzte eta Europako Kontseiluaren lankidetza 15.000 eurokoa izango da.

Gastuei dagokienez:

Gastuaren aurrekontuaren ehuneko 57,4 pertsonal-gastuak (ehuneko 45) eta hipoteka-maileguak (ehuneko 12,4) dira.

Ondasun eta zerbitzuen erosketaren kapituluan (ehuneko 36), azterketa eta lan teknikoen partida azpimarratu daiteke (127.768,32 euro) datu pertsonalak babesteko barneko egokitzapenetarako, hainbat azterketa egiteko (esaterako, udal gizarte zerbitzuen diagnostiko sozialerako ereduari buruzko pilotajea) eta Elkartearen urteko kontuen auditoriarako.

Inbertsio errealei dagokienez, 2020ko ekitaldian nabarmentzen da 2019ko ekitaldian Bilboko Ercilla kaleko jabekideen komunitateak egindako obren amaierako ordainketa eta Elkartearen egoitza berrian 2019an egindako obrengatik komunitate horretan hainbat auzotarri beharbada eman beharreko

kalte-ordaina (112.228,03 euro guztira). Inbertsio immaterialak ere aurreikusten dira, 52.000 eurokoak; horietatik 40.000 € programa informatikoen inbertsioetarako dira, kontabilitatearekin eta sarreren eta irteeren erregistroarekin integratutako espedienteen kudeaketarako sistema elektroniko berria ezartzeko eta udal ekonomiaren informazio-sistema garatzen jarraitzeko ere bai (12.000 €).

Amaitzeko, esan beharra dago Eusko Jaurlaritzaren eta Emakunderen dirulaguntzak jasotzen jarraitzea aurreikusten dela: Berdintasuna, Berrikuntza, Euskara eta Gizarte Zerbitzuak, eta berrikuntza gisa Eusko Jaurlaritzaren 100.000 euroko dirulaguntza ETELen helburuak sustatzeko.

Bilbon, 2019ko azaroaren 26an.

**ERANSKINA**

**EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA**

**2020KO AURREKONTU-PROIEKTUA**

**SARREREN EGOERA**

**EUROTAN**

| SAILKAPEN EKONOMIKOA | | | AZALPENA | HASIERAKO AURREIKUS PENAK, 2019 | HASIERAKO AURREIKUS PENAK, 2020 | 2019-2020 arteko aldea (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 3.149.235,09 | 3.298.457,15 | % 4,74 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **3** | | | **TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK** | **17.000,00** | **17.236,00** | **% 1,39** |
| | | **399** | **Beste hainbat sarrera** | **17.000,00** | **17.236,00** | **% 1,39** |
| | | 39901 | Jardunaldien ondoriozko sarrerak | 12.000,00 | 14.736,00 | **% 22,80** |
| | | 39902 | Beste sarrera batzuk | 5.000,00 | 2.500,00 | **% -50,00** |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **4** | | | **TRANSFERENTZIA ARRUNTAK** | **3.076.219,25** | **3.225.149,27** | **% 4,84** |
| | **41** | | **Euskal Autonomia Erkidegokoak** | **3.061.219,25** | **3.210.149,27** | **% 4,87** |
| | | **410** | **Administrazio orokorra** | **270.100,00** | **370.100,00** | **% 37,02** |
| | | 41001 | Berdinsarea-Berdinbidean sarea. Emakunde | 84.800,00 | 84.800,00 | **% 0,00** |
| | | 41002 | Euskara hitzarmena. Eusko Jaurlaritza | 28.000,00 | 28.000,00 | **% 0,00** |
| | | 41003 | TBA (Herrismartik). Eusko Jaurlaritza | 110.000,00 | 110.000,00 | **% 0,00** |
| | | 41004 | Etorkinen itzulp. hitzarmena Eusko Jaurlaritza | 47.300,00 | 47.300,00 | **% 0,00** |
| | | 41005 | Helb. sust. dirulag. ETEL (EJ) | 0,00 | 100.000,00 | **-** |
| | | **416** | **Foru-aldundiak eta beste foru-erakunde batzuk** | **2.485.037,88** | **2.530.060,31** | **% 1,81** |
| | | 41601 | Araba. Zerga itunduen partaidetza | 323.899,32 | 332.063,26 | **% 2,52** |
| | | 41602 | Bizkaia. Zerga itunduen partaidetza | 1.349.859,00 | 1.380.984,09 | **% 2,31** |
| | | 41603 | Gipuzkoa. Zerga itunduen partaidetza | 804.029,56 | 817.012,96 | **% 1,61** |
| | | 41604 | Araba. EALZ eta Etxebizitza Komunitarioen arloko aholkularitza | 7.250,00 | 0,00 | **% -100,00** |
| | | **417** | **Tokiko erakundeak** | **306.081,37** | **309.988,96** | **% 1,28** |
| | | 41701 | Eudelen bazkideen kuotak | 286.081,37 | 289.988,96 | **% 1,37** |
| | | 41702 | Gobernantza proiekturako ekarpenak | 20.000,00 | 20.000,00 | **% 0,00** |
| | **49** | | **Kanpokoak** | **15.000,00** | **15.000,00** | **% 0,00** |
| | | **490** | **Kanpokoak** | **15.000,00** | **15.000,00** | **% 0,00** |
| | | 49000 | Europako Kontseiluarenak | 15.000,00 | 15.000,00 | **% 0,00** |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **5** | | | **ONDARE ARLOKO SARRERAK** | **56.015,84** | **56.071,88** | **% 0,10** |
| | **54** | | **Ondasun higiezinen errentak** | **56.010,84** | **56.066,88** | **% 0,10** |
| | | **540** | **Hiri-finken errentamendua** | **56.010,84** | **56.066,88** | **% 0,10** |
| | | 540 | Hiri-finken errentamenduak | 56.010,84 | 56.066,88 | **% 0,10** |
| | **59** | | **Ondare arloko beste sarrera batzuk** | **5,00** | **5,00** | **% 0,00** |
| | | **591** | **Bankuko kontuen interesak** | **5,00** | **5,00** | **% 0,00** |
| | | 591 | Bankuko kontuen interesak | 5,00 | 5,00 | **% 0,00** |

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

**EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA**

**2020KO AURREKONTU-PROIEKTUA**

**GASTUEN EGOERA**

**Eurotan**

| SAILKAPEN EKONOMIKOA | AZALPENA | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2019 | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2020 | 2019-2020 arteko aldea (%) |
|---|---|---|---|---|
| | | 3.149.235,09 | 3.298.457,15 | % 4,74 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | | | **PERTSONAL-GASTUAK** | **1.423.937,05** | **1.483.428,09** | **% 4,18** |
| | **11** | | **Behin-behineko langileak** | **59.782,39** | **62.091,77** | **% 3,86** |
| | | 110 | Behin-behineko langileen ordainsariak | 59.782,39 | 62.091,77 | % 3,86 |
| | **13** | | **Lan-kontratudun langileak** | **1.050.092,36** | **1.088.405,09** | **% 3,65** |
| | | 130 | Lan-kontratudun langile finkoen ordainsariak | 1.050.092,36 | 1.088.405,09 | % 3,65 |
| | **16** | | **Enplegatzailearen konturako kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak** | **314.062,31** | **332.931,23** | **% 6,01** |
| | | **160** | **Gizarte-kuotak** | **298.016,81** | **316.885,74** | % 6,33 |
| | | 16001 | Gizarte Segurantza | 269.325,69 | 288.276,22 | % 7,04 |
| | | 16004 | Elkarkidetza kuotak | 28.691,12 | 28.609,52 | % -0,28 |
| | | **163** | **Lan-kontratudun langileen gizarte-gastuak** | **16.045,50** | **16.045,49** | **% 0,00** |
| | | 16301 | Langileen prestakuntza | 8.000,00 | 8.000,00 | % 0,00 |
| | | 16305 | Bizi- eta istripu-aseguruak | 8.045,50 | 8.045,49 | % 0,00 |
| | | | | | | |
| **2** | | | **ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA** | **1.070.404,49** | **1.186.102,71** | **% 10,81** |
| | **20** | | **Errentamenduak** | **2.250,37** | **12.250,60** | **% 444,38** |
| | | **201** | **Eraikinak eta beste eraikuntzak** | **2.250,37** | **2.250,60** | **% 0,01** |
| | | 20101 | Aparkalekuen errentamenduak | 2.250,37 | 2.250,60 | % 0,01 |
| | | **203** | **Garraio-materiala** | **0,00** | **10.000,00** | |
| | | 20301 | Garraio-elem. errentamendua | 0,00 | 10.000,00 | |
| | **21** | | **Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa** | **21.791,07** | **25.500,00** | **% 17,02** |
| | | 214 | Altzarien konponketak | 12.000,00 | 15.000,00 | % 25,00 |
| | | 215 | Ekipamendu informatikoen mantentze-lanak | 9.791,07 | 10.500,00 | % 7,24 |
| | **22** | | **Materiala, hornidura eta beste batzuk** | **1.012.310,69** | **1.114.300,11** | **% 10,07** |
| | | **220** | **Bulegoko materiala** | **27.109,50** | **27.112,21** | **% 0,01** |
| | | 22001 | Bulegoko materiala | 20.460,00 | 20.462,05 | % 0,01 |
| | | 22002 | Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk | 6.138,00 | 6.138,61 | % 0,01 |
| | | 22003 | Material informatiko inbentaria-ezina | 511,50 | 511,55 | % 0,01 |

| | | SAILKAPEN EKONOMIKOA | AZALPENA | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2019 | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2020 | 2019-2020 arteko aldea (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | **3.149.235,09** | **3.298.457,15** | **% 4,74** |
| | | **221** | **Hornidurak** | **24.830,49** | **22.800,00** | **% -8,18** |
| | | 22101 | Argindar-hornidurak | 18.399,94 | 16.000,00 | % -13,04 |
| | | 22102 | Ur-hornidura | 786,55 | 800,00 | % 1,71 |
| | | 22103 | Gas-hornidura | 5.644,01 | 6.000,00 | % 6,31 |
| | | **222** | **Komunikazioak** | **30.826,02** | **34.207,92** | **% 10,97** |
| | | 22201 | Telefono-komunikazioak | 21.619,02 | 25.000,00 | % 15,64 |
| | | 22202 | Posta-komunikazioak | 9.207,00 | 9.207,92 | % 0,01 |
| | | **224** | **Eraikinen aseguruen primak** | **3.109,92** | **3.110,00** | **% 0,00** |
| | | **225** | **Tributuak** | **4.092,00** | **4.092,41** | **% 0,01** |
| | | **226** | **Askotariko gastuak** | **189.575,00** | **277.198,00** | **% 46,22** |
| | | **22602** | **Protokoloko eta ordezkaritzako beharrak** | **2.000,00** | **1.000,00** | **% -50,00** |
| | | **22603** | **Publizitatea eta komunikazioa** | **98.138,00** | **96.761,00** | **% -1,40** |
| | | 2260301 | Publizitatea eta propaganda | 1.000,00 | 1.000,00 | % 0,00 |
| | | 2260302 | Prentsa eta komunikazio zerbitzua | 31.338,00 | 35.611,00 | % 13,64 |
| | | 2260303 | UDALA aldizkaria | 13.800,00 | 12.500,00 | % -9,42 |
| | | 2260304 | Argitalpenak | 40.000,00 | 25.000,00 | % -37,50 |
| | | 2260305 | Webgunearen mantentze-lanak | 12.000,00 | 22.650,00 | % 88,75 |
| | | **22604** | **Defentsa juridikoa** | **24.000,00** | **24.000,00** | **% 0,00** |
| | | **22605** | **Bilkurak eta hitzaldiak** | **45.000,00** | **35.000,00** | **% -22,22** |
| | | **22607** | **Askotariko gastuak** | **1.000,00** | **1.000,00** | **% 0,00** |
| | | **22608** | **ETEL helburuak sustatu** | **0,00** | **100.000,00** | |
| | | **22609** | **Funts bibliografikoak** | **19.437,00** | **19.437,00** | **% 0,00** |
| | | **227** | **Kanpoko beste enpresek egindako lanak** | **267.687,76** | **311.549,57** | **% 16,39** |
| | | 22701 | Garbiketa-enpresen lanak | 37.506,25 | 37.506,25 | % 0,00 |
| | | 22707 | Azterketak eta lan teknikoak | 118.997,28 | 127.768,32 | % 7,37 |
| | | 22710 | Posta-zerbitzuak | 1.227,60 | 2.000,00 | % 62,92 |
| | | 22711 | Programa informatikoen mantentze-lanak | 19.041,57 | 22.000,00 | % 15,54 |
| | | 22712 | Jardunaldiak eta mintegiak | 10.000,00 | 10.000,00 | % 0,00 |
| | | 22713 | Jabekideen erkidegoko kuotak | 22.731,06 | 37.275,00 | % 63,98 |
| | | 22714 | Barneko Euskara Plana | 12.000,00 | 12.000,00 | % 0,00 |
| | | 22715 | Kanpoko beste enpresek egindako lanak | 8.184,00 | 25.000,00 | % 205,47 |
| | | 22716 | Itzulpen-zerbitzuak | 26.000,00 | 26.000,00 | % 0,00 |
| | | 22718 | Berdintasun-plana | 12.000,00 | 12.000,00 | % 0,00 |

| SAILKAPEN EKONOMIKOA | | | AZALPENA | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2019 | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2020 | 2019-2020 arteko aldea (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | **3.149.235,09** | **3.298.457,15** | **% 4,74** |
| | | **228** | **Proiektuak eta programak** | **465.080,00** | **434.230,00** | **% -6,63** |
| | | 22801 | Udalerri txikien dirulag. jarraip. (INFOUDALA) | 21.780,00 | 21.780,00 | % 0,00 |
| | | 22802 | Toki Zuzenbideko Euskal Mintegia | 15.000,00 | 16.000,00 | % 6,67 |
| | | 22803 | Politikari eta zuzendarien prestakuntza | 35.000,00 | 15.000,00 | % -57,14 |
| | | 22804 | Prestakuntza- lagun egiteko programak | 50.000,00 | 50.000,00 | % 0,00 |
| | | 22805 | Buruzagitza prestakuntza | 0,00 | 7.650,00 | |
| | | 22805 | EALZ eta Etxebizitza Komunitarioen arloko aholkularitza | 14.500,00 | 0,00 | % -100,00 |
| | | 22806 | Europako proiektuak | 40.000,00 | 35.000,00 | % -12,50 |
| | | 22807 | Berdintasuna, Berdinsarea | 52.400,00 | 52.400,00 | % 0,00 |
| | | 22808 | Berdintasuna, Berdinbidean | 50.400,00 | 50.400,00 | % 0,00 |
| | | 22809 | Euskara EUDEL | 33.000,00 | 33.000,00 | % 0,00 |
| | | 22810 | TBA (Herrismartik) | 110.000,00 | 110.000,00 | % 0,00 |
| | | 22811 | Etorkinentzako itzulpen-zerb. | 43.000,00 | 43.000,00 | % 0,00 |
| | **23** | | **Zerbitzuagatiko kalte-ordaina** | **34.052,35** | **34.052,00** | **%0,00** |
| | | 230 | Dietak, langileen lokom. eta joan-etorriak | 19.052,35 | 19.052,00 | % 0,00 |
| | | 231 | Dietak, goi-karguen lokom. eta joan-etorriak | 15.000,00 | 15.000,00 | % 0,00 |
| | | | | | | |
| **3** | | | **GASTU FINANTZARIOAK** | **22.284,09** | **15.691,61** | **% -29,58** |
| | **33** | | **Epe luzerako maileguak** | **22.284,09** | **15.691,61** | **% -29,58** |
| | | 331 | Epe luzerako maileguen interesak | 22.284,09 | 15.691,61 | % -29,58 |
| | | | | | | |
| **4** | | | **TRANSFERENTZIA ARRUNTAK** | **22.333,13** | **22.334,00** | **% 0,00** |
| | **48** | | **Fam. eta irabaz asmorik gabeko erakundeei** | **22.333,13** | **22.334,00** | **% 0,00** |
| | | **481** | **Irabaz asmorik gabeko erakundeei** | **22.333,13** | **22.334,00** | **% 0,00** |
| | | 48101 | Hitzarmena, FEMP | 7.067,00 | 7.067,00 | % 0,00 |
| | | 48102 | Hitzarmena, EUSKALTZAINDIA | 15.000,00 | 15.000,00 | % 0,00 |
| | | 48103 | Hitzarmena, EUSKALIT | 266,13 | 267,00 | % 0,33 |

| SAILKAPEN EKONOMIKOA | | | AZALPENA | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2019 | HASIERAKO AURREKONTU-KREDITUAK, 2020 | 2019-2020 arteko aldea (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | **3.149.235,09** | **3.298.457,15** | **% 4,74** |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **6** | | | **INBERTSIO ERREALAK** | **221.737,68** | **198.228,03** | **% -10,60** |
| | **62** | | **Zerbitzuen funtzionamendu operatiboarekin zerikusia duen inbertsioa** | **179.737,68** | **146.228,03** | **% -18,64** |
| | | **622** | **Eraikinak eta beste eraikuntzak** | **155.737,68** | **112.228,03** | **% -27,94** |
| | | 622.02 | Beste eraikinak eta eraikuntzak | 155.737,68 | 112.228,03 | % -27,94 |
| | | **625** | **Altzariak eta tresnak** | **24.000,00** | **34.000,00** | **% 41,67** |
| | | 62501 | Altzariak | 6.000,00 | 6.000,00 | % 0,00 |
| | | 62502 | Bulegoko ekipoak | 18.000,00 | 28.000,00 | % 55,56 |
| | **64** | | **Inbertsio immaterialen gastuak** | **42.000,00** | **52.000,00** | **% 23,81** |
| | | **644** | **Aplikazio informatikoetako gastuak** | **42.000,00** | **52.000,00** | **% 23,81** |
| | | 64401 | Inbertsioak programak | 30.000,00 | 40.000,00 | % 33,33 |
| | | 64403 | Sist. ekonomikoaren garapena | 12.000,00 | 12.000,00 | % 0,00 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **9** | | | **PASIBO FINANTZARIOAK** | **388.538,65** | **392.672,71** | **% 1,06** |
| | **93** | | **Epe luzerako maileguen amortizazioa** | **388.538,65** | **392.672,71** | **% 1,06** |
| | | **931** | **Kanpokoak, Sektore Publikotik kanpokoak** | **388.538,65** | **392.672,71** | **% 1,06** |
| | | 93101 | Epe luzerako ondarearen amort. Colon de Larreategi | 147.988,62 | 149.009,61 | % 0,69 |
| | | 93102 | Epe luzerako ondarearen amort. Ercilla | 240.550,03 | 243.663,10 | % 1,29 |

*Batzorde Eragileak 2020ko maiatzaren 14ko bilkuran onetsitako proiektua*

# AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUAK - 2020

<u>1. artikulua</u>.- Aurrekontua gauzatzeko arau hauek 2020ko ekitaldirako onarturiko aurrekontuaren indarraldi bera dute.

Hurrengo ekitaldiaren hasieran ez badira onartu ekitaldi horri dagozkion aurrekontuak, aurreko ekitaldikoak automatikoki luzatutzat joko dira, hasierako kredituekin. Kasu horretan, arau hauek ere indarrean jarraituko dute, luzapena dirauen aldian.

<u>2. artikulua</u>.- Lotura juridikoa, gastuen sailkapen ekonomikoan, kapitulu-mailakoa izango da; eta gastuen programakako sailkapenean, bestalde, gastu-arloaren mailakoa. Nolanahi ere, bermatu beharko da 1. kapituluari (“Pertsonal-gastuak”) dagozkion gastu arruntek behar besteko aurrekontu-aurreikuspena izan dezaten.

<u>3. artikulua</u>.- Aurreko kapituluan ezarritakoagatik ere, kontabilitate-kontrola dagokion kontu-sailaren gainean egingo da

<u>4. artikulua</u>.- Etorkizuneko ekitaldietarako kreditua konprometitu ahalko da, baldin eta uneko ekitaldian edo hurrengoan hasten bada gauzatzen, eta etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako zenbateko metatuak ez badu gainditzen eragiketa arruntengatiko baliabideen %25. Baliabide horiek likidatutako azken ekitalditik ondorioztatuko dira. Konpromiso-kredituek kanpoko finantzaketa baldin badute, ez dira gastutzat kontatuko, muga horren ondorioetarako.

<u>5. artikulua</u>.- Eskuraketetan eta obren, zerbitzuen edo horniduren kontratazioetan, ekitaldi batean baino gehiagotan ordaindu beharreko ordainketa geroratua dutenean, aurreko 4. artikuluan konpromiso-kredituei buruz ezarritakoa bete beharko da.

<u>6. artikulua</u>.- Gastuen egoera-orrian kreditua sortuko da pertsona fisiko edo juridikoen ekarpenetatik edo ekarpen-konpromiso irmoetatik datozen sarreren ondorioz, gastu jakin batzuei lotuta daudenean.

<u>7. artikulua</u>.- Lotura juridikoaren maila gainditzen duen gastu bat egin behar denean, aurreko ekitaldiko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren zenbateko berean gehituta, hala gertatzen denean, beharrezkoa izango da Batzorde Eragilearen erabakia.

<u>8. artikulua</u>.- Gastu-esleipenari dagokionez, kontuan hartuko dira ondorengo arauak:

- Elkartearen Zuzendaritza Nagusiaren eskumena da, zenbatekoa 35.000 eurotik beherakoa denean (BEZ barne hartu gabe).
- Elkartearen Elkarteburuaren eskumena da, zenbatekoa 35.000 eurokoa edo handiagoa denean eta 100.000 euro gainditzen ez duenean (zenbateko bietan BEZ barne hartu gabe).
- Batzorde Eragilearen eskumena da, zenbatekoa 100.000 eurotik gorakoa denean (BEZ barne hartu gabe).

9. artikulua.- Gauzatzeko arau hauei jarraituz aurrekontuari egiten zaizkion aldaketa guztien berri emango zaie Elkarte honetako kide diren udalei.

10. artikulua.- Ordainketak arau hauek betez egingo dira:

Funtsak Zuzendaritza Nagusiaren eta horretarako gaitutako Diruzaintzako arduradunen sinadura mankomunatuekin erabiliko dira, eta hiru sinadura mankomunatuetatik bi zango dira beharrezkoak.